



BAZTANGO IKASTETXE PUBLIKOEK GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOKO IGERILEKU ESTALIA ERABILTZEKO ESKAERA. 2018/2019 IKASTURTEA.

Ikastetxea:				
Arduraduna:		Tel.:	Helbide elektronikoa:	
Maila	Pertsona kopurua taldean	Eguna	Ordutegia	Datak (hasi/akitu)

ESKAERA:

1. Epea: 2018ko irailaren 11tik 28ra arte.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaletxeko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoen bidez
3. **ERABILTZEKO BALDINTZAK:**
 01. Eskatzen ahal den ordutegia:
Al.-ar.-az.-oz.-ol.: 10:00-12:45 eta 15:00-16:30
SALBU: Asteazkenak 10:00etatik 11:30era 2019ko ilbeltzaren 9tik otsailaren 27ra arte. Herrietako eskolei baimendutako ordutegia baita.
 02. Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldiberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.
 03. Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren arabera.
 04. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 05. Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak, kirol instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake
 06. Beharrezko kirol-materiala ikastetxeak berak eraman beharko du.
 07. Instalazioan kirol-oinetako eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
 08. Eskatzailearen arduraren izanena da instalazioa garbi eta egoera onean uztea.
 09. Eskatzaileak, edozein aldaketa balitz aurikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari bai kirol teknikariari.
 10. Igerilekua erabiliko da, soilik, gorputz hezkuntzako igeriketako eskolak emateko eta inoiz aisia jarduerak egiteko
 11. Ikastetxeak, eskaera honen bitartez, igerileku estalia erabiliko duten guztiek eskola-asegurua, osasun-laguntza eta erantzukizun zibileko asegurua izanena dutela igerilekuan dauden bizkitartean baieztatzen du.
 12. Klaseak putzu handian emanen dira
 13. Talde bakoitzean parte-hartzaileen gehienezko kopurua 20 ikasle izanena da.
 14. Ikastetxeak, talde bakoitzarendako gehienez ordu bat asteko eskatzen ahal du. Kontuan hartu arropaz aldatzeko behar den denbora
 15. Ordu berean eskatzaile batek gehienez kale bat eskatzen ahal du.
 16. Igeriketako eskolak emanen dituen pertsona gai izan beharko du igeriketa irakasteko, eta beti eskolako irakaslea
 17. Parte-hartzaile guztiek beharrezko materiala eraman beharko dute (bainujantzia, burukoa, txinalak, irakasteko materiala,...).
 18. Eskatzaileak onartzen ditu eskaera-orri honetan zehaztatutako baldintzak.